

URIBE KOSTAKO
MANKOMUNITATEAN
EUSKARA
BIZIBERRITZEKO
PLAN NAGUSIA
(2009-2012)

**URIBE KOSTAKO
ZERBITZU MANKOMUNITATEA
EUSKARA ZERBITZUA**

EBPNren helburu nagusia

⇒ Euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea.

⇒ Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.

EBPNren esparruak eta helburuak

1.-Familia transmisioa

Euskararen erabilera handitu etxeko esparruan, eta transmisioa ziurtatu familia kideen arteko hizkuntza izan dadin.

2.-Euskalduntzea-Prestakuntza

2.1.-Euskararen aldeko motibazioa eta euskararen ezagutza handitu herritarren artean.

2.2.-Helduen prestakuntza eskaintzan euskararen erabilera handitu.

3.-Irakaskuntza

3.1.-Euskarazko ikastereduak sustatu.

3.2.-Eskolaz kanpoko prestakuntza jardueretan euskararen erabilera areagotu.

3.3.- Ikastetxeei laguntza tekniko eta ekonomikoa eskaini ikastetxe barruan euskara sustatzeko.

4.-Administrazioa

Euskara Normalizatzeko Erabilera Plana.

5.-Lan mundua

5.1.-Lan munduan euskararen erabilera handitu.

5.2.-Merkataritza eta ostalaritzan euskararen erabilera handitu.

6.-Aisia

Aisialdi eskaintzan euskararen erabilera handitu.

7.-Kirola

Kirol eskaintzan euskararen erabilera handitu.

8.-Kulturgintza

8.1.-Kultur eskaintzan euskararen erabilera handitu.

8.2.-Euskarazko kultur ekoizpenak eta sormena bultzatu.

8.3.-Euskaraz irakurtzeko zaletasuna handitu.

8.4.-Tokian tokiko hizkera, toponimia, historia, ohiturak jaso eta hedatzea sustatu.

8.5.-Erljio saioetan euskararen erabilera handitu.

9.-Komunikabideak

9.1.-Herri edo eskualde mailan euskarazko komunikabideen garapena sustatu edota euskararen erabilera bultzatu egungo komunikabideetan.

9.2.-Publizitatean euskararen presentzia bultzatu.

10.-Teknologia berriak

Teknologia berrietan euskararen erabilera handitu.

Uribe Kostako Mankomunitateko EBNren egitura

	10 ESPARRU	ESTRATEGIAK	EKINTZAK	GUZTIRA
1	FAMILIA TRANSMISIOA	3		14
	Euskararen erabilera handitu etxeko esparruan, eta transmisioa ziurtatu familia kideen arteko hizkuntza izan dadin.	Sentsibilizazioa	3	
		Komunikazioa	4	
		Ekitaldiak antolatu	7	
2	EUSKALDUNTZEA PRESTAKUNTZA	7		27
	2.1. Euskararen aldeko motibazioa eta euskararen ezagutza handitu herritarren artean.	Sentsibilizazioa	7	
		Komunikazioa	3	
		Laguntza ekonomiko eta tekniko eskaini	5	
		Ikastaro bereziak antolatu eta euskara lantzeko euskarriak eskaini	6	
	2.2. Helduen prestakuntza eskaintzan euskararen erabilera handitu.	Sentsibilizazioa eta komunikazioa	2	
		Eskaintza sustatu	2	
		Laguntza ekonomiko eta tekniko eskaini	2	
3	IRAKASKUNTZA	8		12
	3.1. Euskarazko ikastereduak sustatu.	Sentsibilizazioa	1	
		Komunikazioa	1	
		0-3 artean euskarazko eskaintza sortzea bultzatu	1	
	3.2. Eskolaz kanpoko prestakuntza jardueretan euskararen erabilera areagotu.	Komunikazioa	2	
		Eskaintza sustatu	1	
		Laguntza ekonomiko eta tekniko eskaini	1	
	3.3. Ikastetxeei laguntza tekniko eta ekonomiko eskaini ikastetxe barruan euskara sustatzeko.	Laguntza tekniko eskaini	2	
		Eskaintza sustatu	3	
4	ADMINISTRAZIOA (Euskara Normalizatzeko Plana) Erabilera	-		-

5	LAN MUNDUA	6		
	5.1. Lan munduan euskararen erabilera handitu.	Sentsibilizazioa	1	16
		Komunikazioa	2	
	Laguntza tekniko eskaini	2		
	5.2. Merkataritza eta ostalaritzan euskararen erabilera handitu.	Sentsibilizazioa	3	
		Komunikazioa	3	
Laguntza ekonomiko eta tekniko eskaini		5		
6	AISIA	4		
	Aisialdi eskaintzan euskararen erabilera handitu.	Sentsibilizazioa	1	10
		Komunikazioa	2	
		Eskaintza sustatu	5	
		Laguntza ekonomiko eta tekniko eskaini	2	
7	KIROLA	4		
	Kirol eskaintzan euskararen erabilera handitu.	Sentsibilizazioa	1	12
		Komunikazioa	3	
		Eskaintza sustatu	4	
		Laguntza ekonomiko eta tekniko eskaini	4	
8	KULTURGINTZA	13		
	8.1. Kultur eskaintzan euskararen erabilera handitu.	Sentsibilizazioa eta komunikazioa	1	36
		Ekintza sustatu	4	
		Kulturaren arteko harremanak sendotzea sustatu	2	
		Laguntza ekonomiko eta tekniko eskaini	2	
	8.2. Euskarazko kultur ekoizpenak eta sormena bultzatu.	Sentsibilizazioa eta komunikazioa	2	
		Sormena bultzatu	2	
		Laguntza ekonomiko eta tekniko eskaini	3	
	8.3. Euskaraz irakurtzeko zaletasuna handitu.	Sentsibilizazioa eta komunikazioa	3	
		Eskaintza sustatu	7	
	8.4. Tokian tokiko hizkera, toponimia, historia, ohiturak jaso eta hedatzea sustatu.	Sentsibilizazioa eta komunikazioa	1	
		Eskaintza sustatu	5	
		Laguntza ekonomiko ikerketa eta argitalpen interesgarriak sustatzeko	3	

EBPN:**Esparrua / helburuak / estrategiak / ekintzak**

	8.5. Erlijio saioetan euskararen erabilera handitu.	Sentsibilizazioa	1	
9	KOMUNIKABIDEAK	6		
	9.1. Herrian edo eskualdean euskarazko komunikabideen garapena sustatu edota euskararen erabilera bultzatu egungo komunikabideetan.	Sentsibilizazioa eta komunikazioa	2	8
		Eskaintza sustatu	1	
		Laguntza ekonomiko eta teknikoa eskaini	2	
	9.2. Publizitatean euskararen presentzia bultzatu.	Sentsibilizazioa	1	
		Eskaintza sustatu	1	
		Laguntza ekonomiko eta teknikoa eskaini	1	
10	TEKNOLOGIA BERRIAK	3		
	Teknologia berrietan euskararen erabilera handitu.	Sentsibilizazioa eta komunikazioa	2	6
		Eskaintza sustatu	3	
		Laguntza ekonomiko eta teknikoa eskaini	1	

GUZTIRA: 141 EKINTZA

1.-FAMILIA TRANSMISIOA

Helburua:

Euskararen erabilera handitu etxeko esparruan, eta transmisioa ziurtatu familia kideen arteko hizkuntza izan dadin.

SENTSIBILIZAZIOA

Gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako bildumak igorri: ipuinak, kantuak, Alkarbideko kanpainak: Ku-ku, Esadazu euskaraz...

Gurasoengan eragin euren hizkuntza ohiturak seme-alabengan duen eraginaz jabe daitezen: gidak...

Kultura ekonomia edo politika munduko pertsona erreferentzialen bitartez mezuak zabaldu komunikabideetan, musika bidez, kirolaren bitartez: Ebeta tailerrak Julio Ibarren laguntzaz...

KOMUNIKAZIOA

Euskarazko produktuen katalogoa ezagutzera eman: web orrian, gurasoei bidali, udalaren menpeko guneetan eskuragarri jarri...

Haurrentzako zerbitzuei buruzko informazioa ezagutzera eman.

Euskaraz dakiten begiraleen eta irakasleen zerrenda osatu eta herritarren eskura ipini.

Urtebetetze egunetan, jaiotzetan... gonbidapenak, oroigarriak... euskaraz idazteko materiala gurasoen esku jarri: gidak, web orriaren bidez...

EKITALDIAK ANTOLATU

Guraso eta aitona-amonengan eragin, euskararen familia bidezko transmisioa ziurtatzeko: ikastarotxo eta tailer interesgarriak, eurei zuzendutako ikuskizunak...

Gurasoentzako saio erakargarriak antolatu euskaraz: haurrak nola hezi, nola elikatu ondo, gaixotasunei nola egin aurre, jolas tailerrak, sexologia ikastaroak, pediatriak, nola lagundu etxeko lanak egiten...

Familia barruan euskararen erabilera bultzatzeko egitasmo zehatzak martxan jarri: tailerrak, hitzaldiak...

Ekitaldiak antolatu familia osoa aintzat hartuta, eta ikastetxea eta guraso elkarteekin elkarlanean: Gabonetan, Santo Tomas egunean, Santa Ageda egunean edo tokian tokiko ohiturak kontuan hartuta.

Irteerak antolatu Euskal Herrian zehar euskal kulturari lotuta dauden parke, museo, gunek, ekitaldietara: ikastolen egunak, eskola publikoaren festa, Euskararen Eguna, Durangoko azoka, txangoak oporretan...

Gurasoak euskalduntzeko ikastaroak eta erabilera sustatzeko ikastaroak.

Gurasoak eta seme-alabak elkarrekin egiteko ekintzen egitasmoa prestatu, jendea bildu ohi den tokietan (parkeetan...) aurrera eramateko: Euskaraz Olgetan...

2.-EUSKALDUNTZEA - PRESTAKUNTZA

Helburuak:

2.1.-Euskararen aldeko motibazioa eta euskararen ezagutza handitu herritarren artean.

2.2.-Helduen prestakuntza eskaintzan euskararen erabilera handitu.

2.1.-Euskararen aldeko motibazioa eta euskararen ezagutza handitu herritarren artean.

SENTSIBILIZAZIOA

Herritarrengan modu erakargarrian eragin, dakiten euskara hori plazan ere erabiltzeko. Ekimenak definitu eta martxan jarri, herriko eta inguruko eragileekin elkarlanean: euskararen egunean agintari politikoen agerraldiak, pegatinak, egutegiak... Kanpainak sustatu.

Etorri berriei bereziki zuzendutako sentsibilizazio kanpainak antolatu, euskara ikasteak ekar litzaiekeen onurak azpimarratuaz. Etorri berrientzako harrera programekin uztartu.

Gazteengan eragin adin talde horietarako erreferente diren pertsonetan oinarrituta: ZUREA DA AUKERA kanpaina...

Motibazioa landu: motibazio praktikoa (lana bilatzera bideratua...), motibazio sentimentala (gurea da, aspaldikoa....) eta motibazio kulturala (eskaintza kultural bat galtzen den sentsazioa...).

Euskara ikasten dabilena eta euskaltzalea saritu: sarrerak zozkatu, eskualdeko egunkari edo aldizkariren batera urtebeteko harpidetza...

Euskara "akademikotik" "aldendu" eta kaleko euskara sustatu eta zabaldu. Tokian tokiko euskalkia bultzatu.

Euskararen aldeko ekimenetan parte hartzea sustatu: garraiobideak ahalbidetu, sarrerak zozkatu...

KOMUNIKAZIOA

Eskualdeko euskaltegien gaineko gida osatu (zerbitzuak, ordutegiak, helbideak...) eta herritarrei zabaldu.

Euskara ikasteko prozesuaren gaineko informazio orokorra eskaini modu erakargarrian: web orria erabilia, triptikoak, eskualdeko aldizkaria (prozesua, udalak zertan laguntzen duen, metodologia, ziurtagirien baliokidetzeak, egonaldiak familia euskaldunetan programa...).

Etorri berriei bereziki zuzendutako komunikazioa kanpainak egin: mezuak zaindu, bere hizkuntzetara egokitu....

LAGUNTZA EKONOMIKO ETA TEKNIKOA ESKAINI

Euskara ikasteko diru-laguntzak eskaini baldintza batzuk betetzearen truke: klasera joateko edota autoikaskuntza bidez ikasteko.

Diru-laguntzak eman: udako euskarazko ikastaroetara joateko, bestelako euskarazko jardunaldi edo topaguneetan parte hartzeko...

Euskararen oinarri-oinarrizko irakaskuntza finantziatu: etorri berrientzako murgiltze saioak 16 urtetik beherakoentzat; transmisioa bermatzeko, 0-6 urte arteko haurren gurasoentzako ikastaroak...

Gizarte-eragileek euskararen alde egiten dituzten ekitaldietarako diru-laguntzak: Ibilaldia, Korrika...

Euskaltegiei diru-laguntzak eman.

IKASTARO BEREZIAK ANTOLATU ETA EUSKARA LANTZEKO EUSKARRIAK ESKAINI

"Berbalagun" proiektua jorrazteko taldeak sortu herrian (atzerritarrak eta adin guztietako euskaldun zaharrak eta berriak aintzat hartuta).

Euskararen ezagutza beharrak aintzat hartu eta ikastaroak antolatu herriko edo eskualdeko euskaltegiekin elkarlanean: galdutako trebetasunak berreskuratzeke edo birziklatzeko; euskarazko terminologia lantzeko; jendearen aurrean hitz egiteko; herri hizkeraz...

Alor ezberdinetako pertsoneri hobekuntza ikastaroak eskaini: begirale, kirol-entrenatzaile, eskolaz kanpoko jardueretarako arduradun, irakasle, euskaltegiko irakasle, komunikabideetako esatari, merkatari, ostalari, udaltzain...

Etorri berriei zuzendutako ikastaro bereziak antolatu, metodologia egokia erabilia.

Talde zehatz bakoitzari egokitutako hiztegitxoak sortu euskaltegiekin elkarlanean: etorri berrientzat, merkatariarentzat, udaltzainentzat, gurasoentzat...

Euskarazko komunikazio gaitasuna, ahozkoa zein idatzizkoa, hobetzeko saioak antolatu euskaltegi eta ikastetxeekin elkarlanean: jolasak, txapelketak, irteerak, antzerkiak; eta orokorrean, gai ludikoak aintzat hartuta.

2.2. Helduen prestakuntza eskaintzan euskararen erabilera handitu.

SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA

Informazioa eman herritarrei euskarazko helduen prestakuntza zerbitzuez: triptikoak osatu, udaleko aldizkarian agertu, web orrian zintzilikatu...

Helduentzako prestakuntza antolatzen dutenengan eragin (autoeskolak, jubilatuek elkarrekin, kultur elkarte, merkatariek elkarrekin...), ikastaroak euskaraz ere antolatzeko.

ESKAITZA SUSTATU

Udalak antolatzen dituen ikastaroetan euskarazkoak bultzatu.

Helduentzako era guztietako ikastaro eta ekimenak antolatu euskaraz: erlaxazioa, sukaldaritza, lehen arreta, dantza ikastaroak, erreflexoterapia...

LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

Laguntza eskaini, beste eragileek antolatzen dituzten ikastaroak (jubilatuek elkarrekin, kultur elkarteak, merkatariek elkarrekin...) euskaraz izateko: matrikula merkeagoak, diru-laguntzak, irakasleak topatzeko bideak...

Euskaltegiekin batera ekintzak antolatu: euskara oinarrian hartutako txapelketak, irteerak, ikuskizunak, topaguneak, jardunaldiak, udako barnetegiak, murgiltze-ekintzak...

3.-IRAKASKUNTZA

Helburuak:

3.1.- Euskarazko ikastereduak sustatu.

3.2.- Eskolaz kanpoko prestakuntza jardueretan euskararen erabilera areagotu.

3.3.- Ikastetxei laguntza ekonomiko eta tekniko eskaini ikastetxe barruan euskara sustatzeko.

3.1.- Euskarazko ikastereduak sustatu.

SENTSIBILIZAZIOA

DBH, Batxiler, Lanbide Heziketan edo Unibertsitatean sartzear dauden gazteengan eragin, euskarazko eruedetan ikasten jarraitzeak dakartzan abantailak azaltzeko: kanpainak, gutunak, hitzalditxoak, ZUREA DA AUKERA kanpaina, murgiltze astea, euskarazko aukeren katalogoak...

KOMUNIKAZIOA

Gurasogai eta guraso berriei banan-banako informazioa eman 0-3 adin taldeak euskaraz matrikula daitezen: Matrikulazio kanpaina...

0-3 ARTEAN EUSKARAZKO ESKAITZA SORTZEA BULTZATU

Laguntza tekniko eskaini gaztelaniazko zerbitzua eskaintzen dutenei euskarazko zerbitzua garatzeko.

3.2.- Eskolaz kanpoko prestakuntza jardueretan euskararen erabilera areagotu.

KOMUNIKAZIOA

Informazioa eman herritarrei euskarazko eskolaz kanpoko prestakuntza zerbitzuez: triptikoak osatu, udaleko aldizkarian agertu, web orrian ezagutzera eman...

Eskola partikularretarako irakasle euskaldunen zerrenda sortu eta herritarren eskura jarri.

ESKAINZA SUSTATU

Ikastetxe, euskaltegi edota herriko akademiekin haur eta gazteei eskolako lanak egiten lagundu: etxeko lanen txokoa, mintzamen saioak bazkal ostean, etorri berrientzako murgiltze saioak, material osagarria sortu...

LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

Ikastetxeek, guraso elkarteek eta ikasle ohien elkarteek antolatzen dituzten eskolaz kanpoko ekintzak euskaraz egiteko diru-laguntza.

3.3.- Ikastetxeei laguntza ekonomiko eta tekniko eskaini ikastetxe barruan euskara sustatzeko.

LAGUNTZA TEKNIKOA ESKAINI

Ikastetxeei Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak eta bestelako erakundeek (Europako Batzordeak, Europako Kontseiluak...) hizkuntzak sustatzeko kudeatzen dituzten programen eta diru-laguntzen berri eman eta horietan parte hartzera animatu.

Irakasleei eta ikastetxeetako langileei euskaraz dauden baliabide didaktikoen berri eman.

ESKAINZA SUSTATU

Eskola barruko euskal giroa bultzatzeko ekintzak antolatu ikastetxeekin batera: Euskararen Astea, ikasturte amaierako jaiak, Olentzero...

Ikastetxeetan irakurzaletasuna eta mintzamina indartzeko laguntza eskaini: idazleak, bertsolariak... ikastetxeetara eramane.

"Euskara zine aretoetara" programan parte hartzera animatu eta hori gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak eskaini: zine aretoa, sarrerak merkeagotzeko diru-laguntzak, autobusak aretoetara joateko...

4.- ADMINISTRAZIOA

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana

Administrazioari dagokionez, 2007 eta 2008 urteetan zehar onartutako Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana jarriko da abian.

Zer da?

Administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko plana da.

Normalizazio prozesu hau plangintzaka antolatzen da.

IV. Plangintzaldiari (2008-2012) ekingo diogu orain.

IV. Plangintzaldiaren helburua:

Administrazioan euskara erabiltzeari eman nahi zaio lehentasuna.

Orain arteko bidea sendotu nahi da, eta ezagutzak garrantzia izaten jarraituko badu ere, erabilera izango da erronka nagusia.

Euskara ere lanerako hizkuntza "normal" bilakatu nahi da, eta, modu horretan, herritarren hizkuntza eskubideak bermatu.

IV. Plangintzaldiko lan ildoak:

- Hizkuntza Eskakizunei (HE) dagokienez, udaleko langileen egoera ezagutu (HE egiaztatuta dutenak, HE egiaztatu gabe eta derrigortasun-data (DD) dutenak, HE egiaztatu gabe eta DD ez dutenak eta HE egiaztatu behar ez dutenak salbuetsita daudelako) eta eurekin bildu bakoitzaren euskalduntze-planak adosteko: ordu kredituak, ikastaro motak, gabeziak, indar-guneak, beharrak...
- Agintariak ere programa hauetan inplikatuko. Halaber, agintarien euskara-maila aztertu eta, nahi dutenentzat, banakako planak prestatu.
- Langile ororen aurrez aurreko lehen harremana euskaraz izan dadin protokoloak zehaztu eta horiek betetzeko neurriak hartu.
- Langile euskaldunei euskaraz lan egiteko beharrezkoak diren baliabideak eskaini: zerbitzua euskaraz eskaintzen duten enpresen gida, hiztegiak, hiztegi terminologikoak, ikastaroak (euren ezagutza hobetzeko, administrazio-hizkera...).
- Langile euskaldunak identifikatzeko sistema abian jarri.
- Hizkuntza Ofizialen Erabilera Irizpideak finkatu (dirulaguntza-deialdiak, kontratazioak, euskarri idatziak, ahozko adierazpenak, hizkuntza paisaia, tresna eta aplikazio informatikoak, internet eta intranet sareak, argitalpenak, iragarpenak, publikitatea eta kanpainak).
Eta honen berri emateko langileentzako protokoloa sortu: liburuxkak, horma-irudiak, informazioa intraneten...
- Euskararen erabilera arautuko duen udal ordenantza definitu, kaleratu eta jarraipenerako sistema antolatu.
- Euskara Zerbitzuaren eginkizunaren arabera baliabideen beharrak neurtu eta abian jarri.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana administrazio barruan gauzatuko den plana da.

5.-LAN MUNDUA

Helburuak:

5.1.- Lan munduan euskararen erabilera handitu.

5.2.- Merkataritza eta ostalaritzan euskararen erabilera handitu.

5.1.- Lan munduan euskararen erabilera handitu.

SENTSIBILIZAZIOA

Herriko enpresak animatu euskararen erabilera plana gauzatzera: kanpainak...

KOMUNIKAZIOA

Herriko enpresei azaldu euskararen erabilera plana gauzatzeko jarraitu beharreko pausuak zein diren, nola parte hartu, laguntza ekonomiko eta teknikorako zein aukera dauden...

Enpresei ezagutzera eman euskalduntzeko dituzten diru-laguntzak, baliabideak...

LAGUNTZA TEKNIKOA ETA EKONOMIKOA ESKAINI

Saritu euskararen erabilera areagotzeko planak abian jartzen dituzten enpresak: aipamen berezia herriko web orrian, ikastaroak, itzulpenak, aholkularitza, diru-laguntzak...

Kanpo aholkularitza kontratatuzko laguntzak eskaini enpresei: enpresa zerrenda, kontaktuak...

5.2.- Merkataritza eta ostalaritzan euskararen erabilera handitu.

SENTSIBILIZAZIOA

Herritarrengan eta merkataritza edo ostalariengan eragin, Hizkuntza Konpromisoaren Zigilua bereganatzearen onuz, herritarren hizkuntza hautua errespetatzeko lehen hitza euskaraz izan dadin, hizkuntza paisaia zaintzeko...

Errotulazioa finkoa eta noizbehinkakoa euskaraz ere jartzeko kanpainak martxan jarri, merkataritza elkarteen bitartez...

Merkatari eta ostalariak informatu paisaia linguistikoak euskararen erabileran duen eraginaz.

KOMUNIKAZIOA

Merkataritza eta ostalaritza dihardutenei ezagutzera eman beste eskualde batzuetan alor honetan izan duten esperientzia, negozioari euskara erabiltzeak / euskararen erabilera plan batek dakartzion onurak...

Ezagutzera eman euskararen erabilera normalizatzeko udalean bertan eta beste erakundeetan eskaintzen diren aukera eta programak: diru-laguntzak errotuluak euskaraz jartzeko, laguntza teknikoa itzulpenetarako...

Negozioetako jabeen jakitera eman zer eta non aurki dezaketen euskarazko materiala: dokumentu ereduak, fakturak, menuak...

LAGUNTZA EKONOMIKO ETA TEKNIKOA ESKAINI

Arloko merkataritza eta ostalaritza elkarteekin koordinatuz proposamen orokor bat luzatu euskararen erabilera gehitzera bideratuta: ezagutza lantzeko, errotulazioa eta papeleria euskalduntzeko, material idatzien katalogoa (merkealdiak, itxita/zabalik)...

Laguntza tekniko eta ekonomiko eskaini errotuluak aldatzeko (toldoetan, ibilgailuetan...), itzulpenak bideratzeko, bere erakunde irudian euskara erabiltzeko: fakturak, leloak...

Ereduak, inprimakiak, hiztegiak, eta abar proposatu, eskaini eta sustatu.

Saritu merkatarari eta ostalarien ahalegina: udaleko webean eskegi, ikastaroak...

Logo lehiaketa antolatu: herriko dendari eta ostalariek euskarazko zerbitzua ematen dutela identifikatzeko.

6.- AISIA

Helburua:

Aisialdi eskaintza euskararen erabilera handitu.

SENDSIBILIZAZIOA

Aisialdi taldeengan eragin euskara eta aisialdia uztartuko dituzten ekimenak antolatu ditzaten.

KOMUNIKAZIOA

Informazioa eman herritarrei euskarazko aisialdi eskaintza: triptikoak osatu, udaleko aldizkarian agertu, web orrian zintzilikatu...

Aisialdiko begirale euskaldunen zerrendak osatu eta herritarren eskura ipini.

ESKAITZA SUSTATU

Haurrentzako ekintzak antolatu: udako eskaintza (udaleku irekiak, udako ludoteka...); opor garaietako (tailerrak, informatika...); jolasak (herri-kirolak, jokoak...), txangoak udako oporretan, tailerrak...

Asteburuko egitarauak osatu interes bereko pertsonak, gazte taldeak, familiak... elkartu eta euskara kalean erabiltzeko: irteerak, haur jolasak, "euskarazko poteoa", asteburuko haur parkea...

Urte osoko gazte-programa planifikatu, diseinatu eta garatu. Ekintza berritzaileak bultzatu.

Helduentzako aisialdi programa garatu.

Etorri berrien integrazioa bideratutako aisialdi programak bideratu.

LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

Laguntza eskaini, aisialdi taldeetan sortu eta herritarrei helarazten zaien papeleria euskaraz egon dadin edota kalitatezkoa izan dadin eta erakunde-irudia ere euskaraz ipin dezaten: hizkuntza aholkularitza, hiztegitxoak eratu...

Diru-laguntza eskaini begirale-agiri ofiziala lortzeko ikastaroa edo aisialdiko formazioa hobetzeko ikastaroak euskaraz egiten dituzten herritarrei.

7.- KIROLA

Helburua:

Kirol eskaintzan euskararen erabilera handitu.

SENTSIBILIZAZIOA

Herriko Klub eta kirol taldeekin, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatu.

KOMUNIKAZIOA

Informazioa eman herritarrei euskarazko kirol eskaintzaz: triptikoak osatu, udaleko aldizkarian agertu, web orrian zintzilikatu...

Euskara hutsezko kirol aldizkaria argitaratu: Ukirolak.

Kirol-begirale euskaldunen zerrendak osatu eta herritarren eskura ipini.

ESKANTZA SUSTATU

Jendaurreko kirol jardueretan euskararen presentzia bultzatu (futbol zelaian, saskibaloia kantxan, pilotalekuan...) kartelak, megafonia, esatariak...

Herriko kiroldegietako haur, gazte eta helduentzako kirol ikastaroetan euskarazkoen eskaintza handitu.

Euskararen erabilerari lotutako sariak eta txapelketak antolatu kirol elkarteentzat.

Kirol-elkarteak inplikatu urtean zehar egindako euren lanaren berri emateko herrian.

LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

Laguntzak bideratu kirol jardueretan euskaraz dakiten begiraleen presentzia bermatzeko: begiraleen zerrenda, bitartekaritza, ikastaroak...

Diru-laguntzak eskaini euskarazko eskolaz kanpoko kirol jarduerak antolatzeko.

Baliabide teknikoak eskaini kirol taldeetan sortu eta herritarrei helarazten zaien papeleria euskaraz egon dadin edota kalitatezkoa izan dadin eta erakunde-irudia eta materialak euskaraz egon daitezten: diru-laguntzak, hizkuntza aholkularitza, hiztegitxoak, horma-irudiak...

Diru-laguntzak eskaini euskarazko eskola orduko kirol jarduerak antolatzeko.

8.-KULTURGINTZA

Helburuak:

8.1.- Kultur eskaintzan euskararen erabilera handitu.

8.2.- Euskarazko kultur ekoizpenak eta sormena bultzatu.

8.3.- Euskaraz irakurtzeko zaletasuna handitu.

8.4.- Tokian tokiko hizkera, toponimia, historia, ohiturak jaso eta hedatzea sustatu.

8.5.- Erlijio saioetan euskaren erabilera handitu.

8.1.- Kultur eskaintzan euskararen erabilera handitu.

SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA

Herritarren artean euskarazko kultur eskaintza ezagutarazi: gidak, katalogoak, web orriak...

EKINTZA SUSTATU

Herriko jaietan antolatzen diren ekitaldietan euskararen erabilera bermatu (kartelak, esku orriak, megafonia, esatariak, musika...).

Kultura arloan herritarren eta talde ezberdinen ekarpenak biltzeko guneak sortu: web guneak, postontzia...

Haurrentzako, gazteentzako eta helduentzako kalitatezko kultur emanaldiak antolatu: erakusketak, hitzaldiak, proiektzioak, zinema, kanta eta bestelako musika emanaldiak, dantzak, antzerkiak, bertso dramak, ipuin kontalariak...

Euskarazko kultur zirkuituetan parte hartu.

KULTUREN ARTEKO HARREMANAK SENDOTZEA SUSTATU

Ekitaldiak antolatu herrialde desberdinetako ohiturak ezagutzera emateko: musika, janari, bestelako produktu, merkatu, dantza, kirol... edota beste gairen baten inguruan.

Bideo emanaldiak antolatu kultura ezberdinak ezagutzera emateko: diaporamak...

LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

Euskaraz antolatu nahi diren kultur ekintzetarako beharrezkoak izan daitezkeen baliabideak eskaini (zine aretoak, megafonia, hitzaldietarako gunea, bestelako azpiegitura...).

Baliabide tekniko eta ekonomikoak eskaini kultur elkarteek sortu eta plazaratu nahi duten papeleria euskaraz egon dadin edota egokia izan dadin eta erakunde-irudia euskaraz egoteko: hizkuntza aholkularitza, itzulpenak, diru-laguntzak...

8.2.- Euskarazko kultur ekoizpenak eta sormena bultzatu.

SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA

Herritarren artean euskarazko kultur produkzioa ezagutarazi: gida, katalogo, web orri, euskaltegi eta udaleko gune ezberdinetan...

Kultur estreinaldiak ezagutzera eman eta sarrerak zozkatu: dantza, erakusketa, zinema, antzerkigintza...

SORMENA BULTZATU

Kulturgintza lantzeko tailerrak antolatu: marrazkiak, idazketa, argazkigintza, zinema, bideoa, web bidezkoa, literatura, dantza, kanta...

Kultur arloko lehiaketak antolatu, generoa eta adina aintzat hartuta: literatura, argazkigintza, marrazkiak, dantza, piropo lehiaketa, Olentzeroren kantaren bertso lehiaketa...

LAGUNTZA EKONOMIKO ETA TEKNIKOA ESKAINI

Ekoizpen berritzaileak saritu: kantagintza, bertsogintza, antzerkigintza...

Lokalak, guneak eskaini kultur produkzioen erakustoki gisa.

Erakundeekiko bitartekaritza lagundu.

8.3.- Euskaraz irakurtzeko zaletasuna handitu.

SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA

Liburutegiko liburuen euskarazko katalogoa herritarren artean zabaltu.

Euskal literaturako titulu nagusiak (irakurrienak, sarituak...) ezagutzera eman: udalerriko web orrian...

Zentro publikoetan (osasun zerbitzua, udalaren bulegoak...) irakurgai utzi euskarazko aldizkari eta liburuak.

ESKAINITZA SUSTATU

Irakurketa tailerrak antolatu.

Modan dauden idazleen hitzaldiak antolatu: idazteko teknikak, ohiturak, inspirazioa, bidaiak, liburuen komentarioak...

Liburuaren eguna ospatu.

Liburua trukatzeko eguna ospatu: bookcrossinga jarri martxan.

Urtean zehar liburu bana oparitu hurrei, adina kontuan hartuta.

Liburu gaua antolatu.

Herriaren neurriko liburu eta jolas azokak antolatu.

8.4.- Tokian tokiko hizkera, toponimia, historia, ohiturak jaso eta hedatzea sustatu.

SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA

Herritarrengan eragin euskal kultura, kondairak eta toponimia ezagutzera emanda: gida bat, argitalpen txiki bat...

ESKAINZA SUSTATU

Herriko istorio zaharrak, kondairak, ohiturak... ezagutzera eman: hitzaldiak ikastetxeekin elkarlanean; herriko adineko jendearekin elkarlanean, jai esanguratsuetan hizlari bat ekarri, grabaketak egin eta web orrian jarri...

Gai horiei lotuta lehiaketak antolatu herriko haur eta gazteen artean.

Bertako azpieuskalki, toponimia eta ohiturei lotuta eskualdeko beste udalerriekin elkarlanean jolas eta material didaktikoa sortzeko aukerak aztertu (arlotan honetan landu diren beste esperientzia batzuk aztertu).

Tokian tokiko hizkera prestigiatzeko jardunaldiak edo saioak antolatu: berezitasunak gizarteratu...

Abizenak euskal grafiaz jartzeko kanpainak abian jarri.

LAGUNTZA EKONOMIKOA IKERKETA ETA ARGITALPEN INTERESGARRIAK SUSTATZEKO

Tokian tokiko hizkera eta toponimia ondarea jaso, argitaratu eta hedatu (ahozkoa zein idatzizkoa): toponimia, inguruko azpieuskalkiaren ezaugarriak, bilakaera, haur eta gazteen ezagutza eta erabilerari buruzko azterlana...

Diruz lagundu herritarrentzat interesgarriak izan daitezkeen eta ikertuta dauden gaiak argitaratzea, webean zintzilikatzea, erakusketa tematikoak egitea...: nekazaritzako hiztegia, itsasokoa, erremintak, antzinako argazkiak...

Uribe Kostako azpieuskalkia ezagutarazi eskoletan, euskaltegietan...

8.5.- Erlijio saioetan euskararen erabilera handitu.

SENTSIBILIZAZIOA

Gurasoengan eta komunitate bakoitzeko partaideengan eragin, oroigarrietan euskararen erabilera bultzatzeko (bataioa, Jaunartzea, ezkontza, heriotza...).

9.-KOMUNIKABIDEAK

Helburuak:

9.1.- Herrian edo eskualdean euskarazko komunikabideen garapena sustatu edota euskararen erabilera bultzatu egungo komunikabideetan.

9.2.- Publizitatean euskararen presentzia bultzatu.

9.1.- Herrian edo eskualdean euskarazko komunikabideen garapena sustatu edota euskararen erabilera bultzatu egungo komunikabideetan.

SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA

Komunikabideak euskarazko kultur, aisialdi eta kirol ekitaldien berriemaile eta partaide bihurtu.

Komunikabideetan herritarren eta, bereziki, gazteen partaidetza sustatu: emanaldietako sarrerak oparitu...

ESKAINZA SUSTATU

Eskualdean ari diren euskarazko komunikabideen hedapena lagundu (astekariak, hilabetekariak, gazteentzakoak, musika arlokoak...), harpidetzak zozketatuz, herriko web orrian linka eginez, Plentzia Telebista, Gorlizko Irratia, Ukirolak...

LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

Eskualdeko euskarazko komunikabideen hedapena diruz lagundu: Ukirolak, Gorliz Irratia...

Herriko komunikabideetako euskararen egokitasuna bermatu: gomendioak egin, akatsak zuzendu, euskaraz argi eta egoki idazteko laguntza eskaini...

9.2. Publizitatean euskararen presentzia bultzatu.

SENTSIBILIZAZIOA

Enpresa, merkatari eta elkarteei zuzendutako sentsibilizazio ekintzak martxan jarri publizitatean euskararen erabilera bultzatzeko.

ESKAINZA SUSTATU

Udalak egiten dituen publizitate ekimenetan euskarazko komunikabideak lehenetsi.

LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

Enpresa, merkatari eta elkarteei laguntza tekniko eta ekonomikoa eskaini publizitatea euskaraz egin dezaten: itzulpenak, publizitatearen ehuneko bat... .

10.- TEKNOLOGIA BERRIAK

Helburua:

Teknologia berrietan euskararen erabilera handitu.

SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA

Herritarrei teknologia berrien arloan euskaraz sortzen dena aditzera eman eta euren parte hartzea bultzatu (programak deskargatzeko aukerak, Xuxen, telefonia mobila, elebila, web gune berrien zerrenda...): gida edo katalogoa erabilia, web orrian zintzilikatuta, Sareko Euskarazko Produktuen Katalogoa, ... www.euskara.euskadi.net/era linkak...

Herritarren eskura jarri euskararen kalitatea hobetzea helburu duten argitalpenak: idatzien ereduak, hiztegi elektronikoak...

ESKAINZA SUSTATU

Euskarazko eskaintza bermatu KZ guneetako ikastaroetan.

Erabilgarri jarri udal guneetan adin guztientzako eta era guztietako jokoak eta bestelako programak.

Udalaren web orrian Euskararen Txokoa sortu eta euskararekin zerikusia duten edukiak eta berriak hedatu (herriko hizkeraren ezaugarriak, azken inkesta soziolinguistikoaren emaitzak, euskararen normalizazio prozesuan sortzen den informazioa, ekimenak, egitarauak herrian bertan egiten diren kale neurketak edo bestelakoak...).

LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

Euskarazko blog-ak sortzea bultzatu.